

ZENBAT BURU

Iñaki Jaio

ERREPORTAIA

Elgoibarko

Alkoholiko

Anonimoen

Elkartea

GEHIGARRIA

txikiBARREN

GEHIGARRI

BEREZIA

Oporretara joateko

autoa prestatzen

KIROLA

Gipuzkoako

Federazioak

Elgoibarko eskuba-

loi taldeak saritu

ditu

KULTURA

Gelatxoren omenez-


ko jai handia

BARREN

1998ko uztailearen 10a
V. urtea - 244. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A

Trikitilari Eguna Soinu eta pandero jaia



“Mendiak mugitzen dituenak, harri koxkor ugari mugitu behar izan ditu aurretik” Marden

GREMIOEN GIDA

Gremioen gida honetan azaldu nahi baduzu, deitu ! ☎ 943 74 37

AROSZTEGIAK

BIENA

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

GARCIA

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

JUARISTI

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 18
☎ 943 74 29 94

LODOSO

Leihoak
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 34 90

SORALUZE

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 3
☎ 943 74 36 34

ULAZIA

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47

ZABALA

Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea 16
☎ 943 74 03 96

LUIS F. BERISTAIN

Sukaldeak - atek - zoluak
Artetxe, 1
☎ 909 42 68 19

ITURGINTZA

ANGEL

Santa Ana, 5
☎ 943 74 17 61

JAVI

Erretxindi, 1
☎ 943 74 14 80
☎ 908 77 29 32

JUAN CARLOS S.L.

Urasandi 59-61, behea
☎ 943 74 34 87

ONGI

Urasandi, 8
☎ 943 74 10 82

PAGOAGA

San Antolin kalea, 13
☎ 943 74 02 79

TELLABIDE

Azpilgoeta, 19 MENDARO
☎ 943 75 50 62
☎ 907 75 50 62

ZALDUA

Urasandi, 26
☎ 943 74 05 30

ZUBIZARRETA

Ubitarte, 5
☎ 943 74 07 89
☎ 908 14 30 40

PINTURAK

IPINTZA

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 907 74 04 40

PINTURAS ELGOIBAR FERMIN

Urasandi, 57-3
☎ 943 74 39 91
☎ 909 76 28 80

IGELTSERITZA

ANTONIO MARKEZ

Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

JOSE LUIS MENDEZ

Urasandi, 24
☎ 943 74 29 87
☎ 989 58 47 23

IPINTZA

Trenbide, 25
☎ 907 41 78 67

KIDOK S.L.

San Roke, 17
☎ 943 74 34 86
☎ 989 58 37 61

ELEKTRIZITATEA

ARAMAR

Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

AZPELETA

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

BETI ARGÍ

Errosario, 6
☎ 943 74 16 44

URZELAI

Santa Ana, 12
☎ 943 74 13 76

ISOLAMENDUAK

GLAS CONTROL S.L.

Inpermeabilizazioak
Ubitarte, 7
☎ 943 74 30 94



IÑAKI JAIIO

Euskal Herria bizirik eta borrokarako prest

Euskal Herriak bere independentzia galdu zuela 159 urte beteko dira laister. Euskal Herria bere instituzioek emandako marko juridikoan bizi zen, baina 1833tik 1834ra bitartean iraun zuen gerra latz haren ondorioz, Hispaniako botere militarrek instituzio eta lege haien abolizioa inposatu zuen.

1841ean Ebro ibaian kokatutako aduana edo muga historikoak desagertu eta Pirinioetara aldatu zituzten.

Halaxe ekin zion Hispania gerrazaleak historia-ko harrapaketarik handienari, eta ha-

laxe ekin zion kolonizazio eta garbiketa etnikoari. Madriletik bidalitako etorkinez gain, Madrilek izendatutako maisu eta maistra, idazkari, gobernadore eta gotzainek ere gure ezaugarri kultural eta linguistikoak suntsitzeari ekin zioten, euskal meatz-oligarkia finantzioaren laguntza osoarekin.

Españak bere horretan jarraitzen du. Gaur egun ere Euskal Izate Nazionala

ukatzen segitzen du, jatorri, hizkuntza, historia, kultura, lege eta lurraldeak definitzen duena, Gaztela izan aurretik ere milaka urteetan zehar izan dena.

1512an Españako ejerzito inperialistak eraso egin zigun, eta ordutik gogor ekin zion 1839an Euskal Herriaren anexioa lortu zuen arte. Hauxe da historia. Indarkeria ez da Euskal Herrian hasten, eta Euskal Herrian ez da arriskurik demokrazia, elkarbizitza eta elkartasunerako. Indarkeria eta arriskua Españako intransijentziak eragin ditu, inguruko, besteen zapalketa dakarren

“Salvar la Patria” horrek.

“Bergarako Besarkada” traidore hartatik pairatu dugun errepresio bortitza gorabehera, (“gurekin egin duten ikaragarriko injustiziaren pareko gorrotorik ez dago”, Sabino Arana), Euskal Herriak bizirik eta borrokarako prest dirau, Euskal Herriak ez baitio sekula Independentzia Nazionala lortzeari muzin egingo.

“Euskal Herriak bizirik eta borrokarako prest dirau, Euskal Herriak ez baitio sekula Independentzia Nazionala lortzeari muzin egingo”

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Barreak, Birak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12
Publizitatea:
☎ 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04

ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA

Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA

Ainhoa Lodoso

KAZETARIAK

Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro

PUBLIZITATEA

Miren Moreno

MAKETATZAILEA

Mikel Cornejo

ADMINISTRAZIOA

Amaitz Martin

GERENTZIA

Rafa Alvarez,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK

Irati Agirreazaldegia,

Ana Artetxe, Jose Mari Bastida,

Mari Karmen Elorza,

Maider Elustondo, Jon Eugi,

Koldo Galdona, Aintzane Garate,

Jon Garate, Juanito Gorostiza,

Arnaitz Gorriti, Alberto Iriondo,

Iñaki Jaio, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Nieves Loliola,

Ongarri Zine Kluba, Asier Orbea,

Julian Segundo, Jon Suarez,

Anjel Ugarteburu, Iban Urizar,

Miren Vallejo.

BANAKETA ARDURADUNA

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA

Gertu Koop. E.

TIRADA

4.000 ale

LEGE GORDAILUA

SS-1.038/92

ISSN

1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlaritzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.*



Elgoibartarrek bihotzez eskertuz

1997ko abenduaren 10ean Udal Aretot Nagusia herritarrez gainezka zegoela, Haritz Euskal Dantzari Taldearen 25. urteurreneko egitaraua aurkeztu genizuen. 1998rako, Euskara Batzordeak atera zuen egutegia, zuen eskaerak medio, ia astebetean agortu zen.

Urtarrilean herriko Filatelia Elkartearen eskutik, dantza tradizionalari eskainitako erakusketa ikusgarria antolatu genuen. Otsailean Mauxitza Txaranga, Eibarko Kezka eta Debako Gure Kai taldekoekin, Luzaide eta Lapurdiko ihauteriak kaleratu genituen. Martxoan, berriz, Euskal Herriko Txistulari Elkartearen eskutik, 200 txistulari bildu ziren gure herrian. Arratsaldeko erromerian Inazio Bereziartua Musikeskolako dantza ikasleekin Foruen Enparantzan demaseko dantza eta musika saioa eskaini zen. Apirilean, Marta Carrasco eta 'Damian Muñoz Danza' taldeen punta-puntako dantza garaikidea izan genuen. Galiza Etxeko adiskideekin 'Dia Das Letras Galegas' egunarekin hasi genuen maiatza, segidan, gaztetxoentzat, Erraldoi Eguna antolatu genuen Herriko Dultzainero, Trikitilari Eskola eta Udalaren Txistulari Taldearekin. Galdakaoko Andra Mari, Añorgako Arkaitz eta Portugaleteko Elai-Alai taldeek bukerak ezin hobea eman zioten maiatzari.

Trinitate jaietan, berriz, Inazio Bereziartua Musikeskolak antolatutako Haur Tanborradako karroza taldeari eskainitakoa izan zen. Itxaropena Abesbatzarekin San Juan bezperako 'Sua, dantza eta kantua' ikuskizuna aurkeztu genuen zuen txalo zaparradaren artean.

Azkeneko ekitaldia, berriz, joan den domekan ospatu genuen, 500 trikitilari bilduz Gelatxori eskainitako omenaldian. Honen antolakuntzan Udalak (Udal Brigada, Kirol Patronatua, Udaltzaingoa), Sallobenteko auzotarrak, Foru Aldundiak, Danobat Kooperatiba Elkarteak, Ongarri Ar-

gazki Taldeak eta Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak benetan lan ikaragarria egin zuten. Zuen erantzuna, berriz, beti bezala, aparta.

'Trikitixaren mundua' erakusketa, larunbatean, hilak 11, gaueko 21:00etan amaitutzat emango badugu ere, datorren asteazkenean, hilak 15, arratsaldeko 20:00etan erakusketa berri bat ikusteko aukera duzue, 'Alakiketan, Tradizioaren ikuspegi bat' izenburukoa.

Uztailaren 24an, berriz, Nazioarteko 12. Folklore Jaialdia izango dugu, Txankakua Merkatari Elkartearen laguntzarekin, Moldavia eta Jamaikako taldeekin batera dantzatuko dugularik. Abuztuaren 24an, berriz, Soka-Dantza ikusgarria eskainiko dugu Foruen Enparantzan dantza taldeko sortzaileak gaurko dantzariarekin bat eginik. BARREN astekariak ere gehigarri bat eskainiko dio taldeari. Ongarri Elkarteak, berriz, argazki erakusketa eskainiko digu Kultur Etxean.

Abenduan, Parrokiko Jaiotza antolatzen duten herritarrek, gure urteurrenaren bukerak ezin hobea eskaintzeko, jaiotza berri bat erakutsiko digute.

Hau dena egiteko, aipaturiko talde eta entitateen laguntza jaso badugu ere, zuen presentziarekin gure lana benetan arina izan delakoan gaude. Izan ditugun akatsak barkatuko dizkiguzuelakoan, bihotzez eskertzen dizuegu taldearen ekintzetan gurekin izan zaretelako. Zuei esker, ahalik eta lehial eta gogotsuen jarraituko dugu lanean.

Haritz Euskal Dantzari Taldea

Gelatxotarren eskerrak

Joan den domekako omenaldi berriaren lagun izan zineten herritar guztion presentzia bihotzez eskertu nahi dugu. Omenaldia sekula ahazten ez den horietako izan zen eta bizitza osoan eramango dugu bihotzean. Mila esker, bene-benetan, bihotz-bihotzez.

Gelatxo familia

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zenbakia**.

Vicky tratamenduarekin hasi da

Eskekerak bihotz-bihotzez Vicky Arrasateko Aita Meni ospitalean tratamendua jasotzen egotea posible egin duzuen guztioi.

Tratamendua pertsonalizatua eta berezia da, Vickyren beharrei egokitua. Burmuineko kalteak jasatu dituztenen arloan dago.

Hilabete edo hilabete eta erdi barru tratamenduari nola erantzun dion eta errehabilitazioa amaitzeko ospitalean zenbat denbora pasatu beharko duen jakingo dugu. Dagoeneko ospitalean 4 hilabete-ko tratamendua jasotzeko diru nahikoa bildu dugu.

Jende askoren laguntza jaso dugu. Askotan izen propioak ozenki esateko gogoia izaten dugu baina dirua biltzen jarraituko dugu anonimotasunean, behin eta berriz denoi eskerrak emanez.

- Laguntzeko prest zaudetenon baina oraindik egin ez duzuenon borondate onari dei egiten diogu. Asmoak onak dira baina ez badira dirutan gauzatzen ez digute balio. Enpresa eta erakundeei dei egiten diegu bereziki, nahiz eta zenbait enpresak egin dituzten donazioak. Benetan eskertuko genuke kirol eta kultur elkarteren bat ekitaldiren bat antolatzeko prest azalduko balitz (gu, gure esku dauden ahalbide guztiekin, laguntzeko prest geundeke, noski).

Laguntzen ari diren Mendaroko, Sorluzeko, Bergarako, Eibar-ko eta Elgoibarko pertsona guztiei eskerrak luzatu nahi dizkiegu. Ea denon artean helburua lortzerik dugun!

Osasuna eta atsegina denontzat.

Vickyren Lagunak

Mendaroko Vickyren Lagunak

Dakizuen bezala, Elgoibarko eta Mendaroko herritarrei esker, Vicky tratamendua jasotzen ari da Arrasaten. Hala ere, Mendaroko Vickyren lagunok mendarotar guztioi gogorarazi nahi dizuegu errifak salgai ditugula Mendaroko taberna eta denda guztietan. Zuen laguntza beharrezkoa da Vicky sendatzeko. Era berean, domekan, hilak 12, Jubilatutako Eguna dela-eta, jakin ezazue errifak kalean saltzen izango ditugula. Zuen erantzuna orain arte bezain egokia izatea espero dugu. Eskerrik asko, bihotzez.

Mendaroko Vickyren Lagunak

Jolaslekua ez dago itxita

BARRENEko 243. zenbakian hiru mutikoren kexa agertu zen Herri Institutuko frontoia eta futbito zelaia itxita zeudelako. Honen bitartez, bai mutiko horiei bai herriko beste edozein neska-mutikori, zera argitu nahi diogu:

Batetik, gure ikastetxeko jolastokiak irekita dituztela, beti ere udako ordutegiaren barruan (goizeko 8:00etatik 14:30era arte). Ordutegi hau atezainen lan-orduekin bat dator, izan ere, ezinbestekoa iruditzen baitzaigu norbaiten "begiradapean" irekitzea, edozer gertatuta ere. Ez alferrik, kristalen apurketa (ez zen bakarra izan) erabilera-orduetatik kanpo izan zen, seietatik aurrera alegia.

Bestetik, eta bukatzeko, esan behar dugu gure ikastetxeak dirugastu handia egin duela bertako instalazioen hobekuntzan eta txukunketan, eta noski, ez gaude dirua nolana haxutzeko. Hortaz, guztion ardura da ahalik eta ondoen zaintzea erabiltzen ditugun toki eta tresnak; bestela, hiru mutikoen ederki zioten bezala, errurik ez duenak ordaindu beharko du, hau da, Herri Institutuan gauden eta bertara datozen guztiok.


Herri Institutuko
Zuzendaritza Taldea



GALDERAK

◆ Mutiko batzuek jakin nahi dute ea aurtengo San Bartolome jaietan tiro-pitxoirik egongo den. Udal Kultura Saila arduratzen da barrakak ekartzeaz eta sail honetako teknikariari luzatu diogu galera.

“Bai, aurten tiro-pitxoia egongo da. Gertatzen dena da Baserritarren Egune-ko azokaren menpe egoten garela zenbat barraka ekarri eta hauen kokapena zehazteko. Aurten Limousin azoka tokatzen da eta Aita Agirre plazan tiobibo txiki batentzako lekurik baino ez dago. Gainerantzeko barrakak Leku-Ederren kokatuko dira, tartean, lehen aipaturiko tiro-pitxoia”.




TXALOKAK

◆ Herritar ugarik deitu digute Haritz Dantzari Taldea, Ongarri Argazki Taldea, Udala eta Trikitilari Elkarte txalotzeko. Benetan ikusgarria iruditu zitzaie domekako jaiak. “Antolakuntza sekulakoa irudi zitzaigun, dena zegoen behar zen ordurako prest, horrenbeste jende koordinatzea zein zaila den kontuan izanda. Erromeriari buruz zer esanik ez. Txalo berezia eta benetako merezi dute Haritz Dantzari Taldeko kideek, “urte osoan geratu gabe dabilta, eta domekako bazkarian gainera, mahaiak zerbitzen arituz ziren, kamarero profesionalen inbidiarik gabe. Zorionak bene-benetan”.



ALKOHOLIKO ANONIMOAK

Aurten 13 urte bete ditu Elgoibarko Alkoholiko Anonimoen Elkarteak. Guztiok dakigu alkoholak gure gizartean duen izaera soziala baina horren atzean, guk uste baino gehiagotan, alkoholismo arazoak ezkututzen dira. Ezkutatu hitza erabili dugu oraindik ez baitago batere onartua alkoholikoaren figura gure artean. Alkoholiko Anonimoak, hain zuzen, anonimoak dira. Erreportaje hau egiteko orduan ere arazoak izan ditugu euren testigantza kontatzeko prest zegoen norbait aurkitzeko, nahiz eta onartzen duten euren bizipena azaltzeak berebiziko eragina izan dezakeela jendearen artean. Hala ere, 30 urteko gazte elgoibartar batek onartu du bere esperientzia kontatzea. Eta, egia esan, alkoholiko hitzaren atzean dagoena guk pentsatzen duguna baino askosaz zabalagoa dela konturatu gara.



30 urteko mutil elgoibartar honek 15 urterekin izan zuen alkoholarekin lehen kontakua, “kuadrilakuak domekatan urtetzen ginan. Txikiteuan ardo gorrixa gaseosiakin hartzen genduan eta gero Guassera juten ginan. Haurtzaroa atzean laga nahian zabilta eta badirudi helduen gizartean sartzeko lehen urratsa zela. Gainera, ni tipo arrunta nintzen. Ez nuen ezertan destakutzen, ez kirolean, ez estudiantzen, ez fisiko aldetik ez nintzen batere deigarria eta alkoholak indarra ematen zidan jendearekin harremanak izateko, neskekin ligatzeko, sinpatikoagoa nintzen, seguridatea ematen zidan, ausartagoa nintzen, konplejorik gabea...”. Burutik ez zitzaion pasatu ere egiten noizbait arazoak izango zituenik alkoholarekin, “beti pentsatzen duzu asteburuetan edateagatik bakarrik ez dela ezer gertatuko. Gaztea zara, dibertitzen ari zara... Alkoholismoa urruti ikusten duzu”.

Are gehiago, mutil hau beti izan da asteburuetan bakarrik edaten dutenetakoa, gaur egun gazte askok egiten duten bezala. “Uste dugu alkoholikoa izateko egunero eta asko edan behar dela, eta luzaro gainera, urte asko pasa behar dituzula edan eta edan. Uste hori okerra da. Nik asteburuetan bakarrik edaten

nuen, baina asteburuero beharrezkoa zitzaidan alkohola edatea lagunekin kalerara atera eta ongi pasatzeko”.



Muga gainditu

Alkoholak sortzen zion ongizatea, poztasuna, alaitasuna eta protagonismoa gustatzen zitzaizkion. Hala ere, urteak pasa ahala gauzak aldatzen joan ziren, “hasieran ondo pasatu arren, alkoholaren eraginez egoera lotsagarrietan sartuta aurkitzen nintzen, hurrengo egunean ez nintzen ezertaz akordatzen eta demaseko astakeriak egin nituela

kontatzen zidaten. Ez nekien frenorik jartzen. Une batean ondo nengoen eta berehala, desfosatuta. Muga gaindituta nuen”.

Hala ere, noiz eta nola onartzen du pertsona batek alkoholikoa dela eta laguntza behar duela? Elgoibartarrak azaldu digunez, “ez da erraza. 20 urte nituenerako konturatuta nengoen nire edateko era ez zela besteena bezalakoa. Baina ez nekien alkoholismoa zer zen. Uste nuen alkoholikoa banko batean etzanda eta txixa usainakin dagoen gizon bizarduna dela, baina ni bezalako mutil bat...”. Arazoaren irtenbidea bere kabuz topatzen hasi zen, “saiatzen nintzen gutxiago edaten zer moduz moldatzen nintzen ikusteko... baina edariaren falta igertzen nuen eta ez ninduen konbenzitzen”.

Alkoholiko Anonimoak

Ordurako etxean bazekiten zerbait gertatzen zitzaioela, “batez ere amarekin asko hitz egin izan dut gaiaz. Ama izan zen ausardiarik gehien izan zuena. Begietara begiratu orduko bazekien zenbat edan nuen eta bera izan zen laguntza bila Alkoholiko Anonimoetara joateko bultzatu ninduen. Amak eman zuen lehen pausoa”.

Orain dela 6 urte joan zen lehenengo aldiz Alkoholiko Anonimoen bilera batera. “Aurretik etsita nengoen eta besteek kantzerra edo diabetisa duten bezala, ba nik beti edariarekin arazoak izango nituela onartzen nuen”. Halere, amak aholkatuta, Alkoholiko Anonimoetara joateko erabakia hartu zuen, “gehienbat entzutera, ze ez nuen batere garbi edateari utzi nahi niola. Alkoholak bizitza ematen zidan nahiz eta konturatu alkoholak berak kentzen zidala bizitza”. Alkoholiko Anonimoetara iritsi zenean uste baino askoz gauza gehiago topatu zituen, “itxaropena, batez ere. Ordura arte pentsatzen nuen martziano bat nintzela eta arazo hura nik bakarrik nuela. Elkartean konturatu nintzen bazeudela ni bezalako beste asko, identifikatua sentitu nintzen. Denok aitortzen dugu alkoholak gure bizitzak nahastu digula eta horrek lasaitasuna eman zidan”. Bakoitzaren esperientziak entzunda eta bereak kontatuta hainbat gauza aldatzen hasi ziren elgoibartar honen buruan, “zure barrura begiratu behar duzu arazoa non dagoen ikusteko. Horretarako laguntza behar duzu eta nik Alkoholiko Anonimoetan aurkitu nuen, haiek bazekitelako zer gertatzen zitzaidan eta, batez ere, ulertzen zutelako”. Astean hiru aldiz bileretara joaten hasi zen eta, poliki-poliki konbentzimendu batera iritsi zen, “onartzen nuen alkoholikoa nintzela baina, baita ere, Elkartean zeu-

Zer da

ALKOHOLIKO ANONIMOAK

“Alkoholiko Anonimoak, euren esperientzia, indar eta arazo amankomuna sendatzeko itxaropena konpartitzen duten gizon eta emakumez osatutako komunitatea da, beste batzuei ere alkoholismotik ateratzen laguntzen saiatzen direnak. Alkoholiko Anonimoetako partaide izateko baldintza bakarra edaria lagatzeko desioa izatea da. Ez da kuotarik ordaindu behar, ez dago sekta erlijioso, alderdi politiko edo bestelako erakunde edo instituziori afiliatua. Ez du gatazketan parte hartu nahi, ez eta edozein arazoiren alde edo kontrako iritzirik azaldu. Alkoholiko Anonimoek duten helburu bakarra edan gabe egon eta besteei ere horretan laguntzea da”.

den besteek bezala, posible nuela alkoholik gabe pozik bizitzea. Apirilean joan nintzen lehen bilerara eta abenduan hartu nuen edaria lagatzeko erabakia. Baina erabakia hartu eta edateari lagatzea bat izan ziren. Sei urte daramatzat alkohol tantarik edan gabe”.

Ez omen zitzaion oso zaila egin, ‘berehala konturatu nintzan beste alternatiba batzuk landu bihar nitxula. Edateagatik egin gabe laga nituen gauzak egiten hasi nintzan, txikiteo ambientetik aparte”. Gaur egun tabernetan ibiltzen da, “baina ez dot alkoholik

edaten, noski. Alkoholikoak betirako gera alkoholikoak. Badakit alkohol piska bat edateak zer suposatuko zukeen nerretzat eta ez dut arriskatu nahi. Alkoholik gabe zoriontsu izan daitekeela ikasi dut eta nire burua gehiago ezagutzeko aukera eman dit. Gauzen benetako balioaz jabetu naiz”.

Asteburuko alkoholikoak

Argi dago alkoholikoen figura duela urte batzuetatik hona aldatu egin dela, “egunero, eguerdi eta arratsaldean txikiteoan dabilzan asko alkoholikoak dira eta baita asteburuetan mozkortzen diren gazte batzuk ere. Hauek, gainera, alkoholarekin beste droga batzuk nahasten dituzte”. Alkoholismoak tabu izaten jarraitzen du oraindik, “nik uste dut batez ere gaizki ulertua dagoela baina gaixotasuna dela onartzen da eta hori aurrerapauso bat da. Askotan pentsatu ere ez dugu egiten alkoholi-

koak izan gaitezkeenik eta hori da kontua, zeren eta alkoholismoak ez du abisatzen eta konturatzen zarenerako arazoak dituzu”.

Edonola, Elgoibarko Alkoholiko Anonimoen Elkartek Santa Klarako komentuan dauka bere egoitza eta astelehen eta ostiralero elkartzen dira arratsaldeko 20:00etan. Ateak irekita daude bertara hurreratu nahi duten guztientzat.

Gogoan izan alkoholikoa izateko ez dela beharrezkoa asko, egunero eta luzaroan edatea.



“Uste dugu alkoholikoa izateko asko edan behar dela, egunero eta luzaroan eta hori ez da horrela. Nik asteburuetan bakarrik edaten nuen”.

Nolako etorkizuna ikusten diozu Altzolari?



ROSA LARIZ

68 urte, etxeakoandrea

Etorkizunik, batere ez. Gustora bizi naiz Altzolan, bertan jaixo ta bizi izan naiz beti baina kanpotik jenderik ez da etortzen. Pare bat etorri zian eta beste horrenbeste jun.



ENRIKE IRIONDO

65 urte, jubilatua

Eskasa, eta Udaletxiak lagata dakanetik, eskasaua. Etxe zahar galantak jausten daude eta jendiak alde eitzen dau. 200 lagun eskas geranez ko-mertziorik ipintzerik ere ez dabe nahi.



MARI TERE BARRENETXEA

58 urte, etxeakoandrea

Nahiko eskasa. Oin tren a ere kendu nahi digute... Falta zana! Etxerik ez dabe eitzen eta hola ezin leike. Jende gaztiak alde eitzen dau.



RAMON ZAFRA

47 urte, langabetua

Ni pozik bizi naiz Altzolan, trankil-trankil. Hala ere, inork ez digu kasurik egiten eta etxe gehiago egitea beharrezkoa dela ikusten dut jendea bertan geratzeko.



ISABEL TENA

41 urte etxeakoandrea

Kaxkarra. Egunetik egunera gero eta tristeagoa dago au-zoa. Gazteek alde egiten dute eta hemen nagusiak baino ez dira geratzen. Etxe merkeak eraiki beharko litzukete.



SILVERIO LORENZO

13 urte, ikaslea

Nik uste det posible dala hobetzia. Dendak falta dia baina bestela, ondo dao, ni ez nintzake jungo inora. Txarrena da tren a kendu digutela eta hondartzara juteko nahiko gaizki dao.

BOUTIQUE DEL PAN
 Enpanadak Enbutidoak
 Baserriko ogia Bolleria
 San Bartolome, 6 / B. Ezenarro, 1 ☎ 943 74 33 92

 **Bukatu S. Coop.**
 Olaso industrialdea. Olasope, 66-A
 Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR
MEKANIZATUEN TAILERRA

Apir obetatu udakia gida baimena ateratzeko


LARRAÑAGA
 A U T O E S K O L A
 Santa Ana, 11 • Tel: 943 74 10 11

bena ematerakoa %10eko beharrena gabe txartelarekin

ISPILUARI BEGIRA



*yon
lejaristi*

YON garajekoa

- **Bidaiatzeko garraibiderik onena?** - Autoa.
- **Motorren abiadurak ala askatasunak erakartzen zaitu?** - Askatasun sentsazioak.
- **Mendiko ala errepedeko motorrak nahiago dituzu?** - Mendikoak.
- **Estresa uxatzeko "tuboescape" egokiena?** - Motorrian ibiltzia.
- **Nor ixilaraziko zenuke motorraren zarataz?** - Nere kontra egiten duten danak.
- **Zein arazo soziali jarriko zenioke frenoak?** - Langabeziari.
- **Mendiko motorrik onena?** - KTM markako edozein, nirea KTM 200 bat da.
- **Gidari on baten ezaugarriak?** - Fisiko eta erreflejo onak edukitzea.
- **Nora egingo zenuke bidaia?** - Orain bertan Australiara, bertan izango baita "6 días de Enduro". Lehengo urtian Italian izan zan baina aurten urrutiegi tokau da.
- **Bezeroa aholkatu ala konbentzitu?** - Aholkatzea hobe.
- **Zein gaitasun izan nahi zenuke?** - Nire lanean hobe izatea.
- **Musika talde bat?** - Zigor Gazkez eta Bruce Springsteen.
- **Noizko Euskadiko Enduro txapelduna?** - Iaz txapeldunordea izan nintzen baina hemendik aurre-ra ez daukat itxaropen haundirik.
- **San Ferminetara joatekoa asmorik?** - Aurten ez.
- **Maniarik?** - Adibidez motorra beti prest eta garbi edukitzea.

Asier Orbea

- Kontabilitate
- Lan
- Fiskal



Kalamua 12
ELGOIBAR
Tel-Fax:
943 74 18 91

**URKIDI
AHOLKULARITZA**

ITT ERCOS ASEGURROAK



Anchústegui s.a.
ZERAMIKAK

Erakusketa eta bulegoa:
Antonio Arrillaga, 6-8 behe
83 P. K. - 20870 ELGOIBAR
Tel: 943 74 33 44 - 74 06 92
Faxa: 943 74 37 11

Biltegia:
Olaso industrialdea
Olasope, 5
20870 - ELGOIBAR
Tel: 74 20 38 - 74 23 71



I. URTEURRENA

1997ko uztailaren 17an, 70 urte zituela hil zen
SEBASTIAN ANSOLA JUARISTIren oroimenez
URTEURRENEKO MEZA izango da Madalako elizan
larunbatean, hilak 18, arratsaldeko 20:00etan.
Joaten zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



● San Bartolome jaietako jubilatuen bazkaria

Abuztuaren 30ean jubilatuen bazkaria izango da Olaizaga kiroldegian. Bazkaria joateko 60 urte eduki behar dira; alargunek, berriz, ez dute adin mugarik. Bazkari txartelak uztaillaren 6tik aurrera jaso daitezke Jubilatu Etxean, goizeko 10:00etatik 12:00etara bitartean. Bazkariaren prezioa 800 pta.koa da eta txartelak eskuratzerakoan bazkide agiria aurkeztu behar da. Bazkalostean Gelatxo orkestak erromeria eskainiko du.

● Ur, zabor eta estolderia zergak

Udaleko Dirubilketa bulegotik aditzera eman dutenez, 1998ko bigarren hiruhilabeteko ur, zabor eta estolderia (alkantarila) zergak ordaintzeko epea uztaillaren 24an amaituko da helbideratu gabekoen kasuan. Bulego ordua goizeko 11:00etatik 13:00era bitartekoa da. Ordainketak Dirubilketa bulegoan edo edozein banketxe edo aurrezki kutxatan egin daitezke. Aipaturiko epea pasatu ondoren, prozedura exekutiboa hasiko da, ordaindu gabeko agiriekin %20ko gainkarga izango dutelarik.

● Ingurugiro bekak

Bi eibartar gaztek, Iñaki Hernándezek eta Amagoia Cañok eskuratu dituzte Deba Beheko Mankomunitateak bigarren urtez bultzatutako ingurugiro bekak. Guztira bailarako 30 gazte inguruk hartu dute parte aukeraketa prozesuan. Ingurugiro gaietan espezializatze-ko bekak dira honako hauek eta eskualdeko gazteen hezkuntza bultzatzea dute helburu. Guztira 2,5 milioi banatuko dira.

Telefónica Móviles enpresak Karakaten eraiki zuen plataforma kendu dute

Udalak errekurtsioa jarri zuen obrak baimenik gabe hasi zituztelako

Telefónica Móviles S. A. enpresak Karakaten eraikitako porlanezko oinarria kendu egin du urtarrilaren 30ean Udalak irekitako espedientea dela-eta. Urtarriletik uztaillera bitartean Telefónica Móviles S.A. enpresak beharrezko dokumentazioa Udaletxean aurkezteko aukera izan du, baina Udal ordezkariak azaldu bezala, “ez du inongo dokumentaziorik aurkeztu eta beraz, espedienteak bere bidea jarraitu du”. Horrela bada, enpresak porlanezko plataforma kendu behar izan du. “Horrelako kasuetan zigorrak ere izaten dira baina oraindik ez dakigu enpresa honi isunen bat jarriko zaion ala ez, dena den, diru aldetik nahiko isun txikiak izaten dira”. Telefónica Móviles S. A. enpresak 1997ko abenduaren erdi aldera hasi zituen ai-



patutako antena jartzeko obrak. Gaur egun hiru antena daude Karakaten eta Telefónicaren antenarekin lau izango lirarteke, azken hau 20 metrokoa. Itxura denez, enpresa honek kobertura arazok zituen Deba bailaran eta arazo honi irtenbidea topatzeko eraiki nahi zuen antena.

Gipuzkoako Medikuen Kolegioak Pepe Arrillaga elgoibartarra omendu du

85 urterekin, Kolegioko medikurik zaharrena da

Jose edo Pepe Arrillagak, 85 urteko elgoibartarrak, omenaldi beroa jaso zuen Gipuzkoako Medikuen Kolegioaren eskutik joan den ekainaren 19an. Donostiako Kolegioaren egoitzan izan zen ekitaldian Pepe Arrillagak, beste 10 medikurekin batera, oroigarri bat jaso zuen medikuntzaren arloan egindako lanarengatik. Arrillagak berak esan digunez, “ni naiz gaur egun Kolegioko medikurik zaharrena”. Pepe Arrillagak bizitza osoa eman du medikuntzan lanean. Duela 18 bat urte ju-



bilatu zen, aitaren klinikan eta Eibarko Seguritate Sozialean hainbat urtez jardun eta gero. Bokazioz baino, etxean ikusita ekin zion sendagile izateari. Bere aita Antonio Arrillaga zen eta anaia Julian Arrillaga, medikuak biak (aita alkatea ere izan zen). Hirurak, Elgoibarko klinikan aritu ziren urte askoan. Arnoate izena zeukan klinikak, aita jaio zen baserriaren omenez. Bai aitak, bai anaiak bai Pepek, gaixo ugari eduki zituzten, eta beti eutsi zioten ez kobratzeko ohiturari.



Euskal presoen adeko ekitaldiak

Argazkiotan Euskal Presoak Euskalerriratzearen Aldeko Herri Plataformak antolatutako zenbait ekintza ikus ditzakegu. Goiko argazkian giza katea ikus dezakegu. 85 bat lagunek hartu zuten parte bertan. Bestean Ekekei Taldearen kale antzerkia azaltzen da. Plataformaren eragileek eskerrak luzatu nahi dizkiete “gurekin bat egin duten elkarte eta herritar guztiei, baita Udal kultur arduradunari ere, gai honi buruzko udal erabakiak jarraituz, bere laguntza eman digulako”. Plataformaren helburua indarrak biltzen jarraitzea da, herritarren sentsibilizazioa landuz eta ekitaldi berriak antolatuz”.



IMHko 7. promozioaren aurkezpena

Erreminta Makinaren Institutuko 7. promozioaren graduazio ekitaldia izan zen joan den ostiral arratsaldean (uztailak 3) IMH ikastetxean. Promozio honetan 69 ikasle graduatu dira eta esan digutenez, gehienek lan kontratua ziurtatuta dute. Ostiraleko ekitaldiari hitzaldi batekin eman zitzaion hasiera eta amaieran, promozioiko argazkia atera zuten ikastetxeko pergolan. Ekitaldian Alfonso Unzeta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko sailburuordea, Alberto Ortueta AFMko Zuzendari Nagusia, Gillermo Garate alkatea eta IMHko zuzendaria-gerentea den Jose Rejok hartu zuten parte.

● Haur Eskolako intoxikazioaren txostena


Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak txosten bat kaleratu du joan den ekainaren 3an Elgoibarko Haur Eskolan gertatu ziren botaka eta beherako kasuak direla-eta. Haur Eskolako 17 haurretatik 7 ingresatu zituzten Mendaroko ospitalean. Txostenaren arabera, sintomak aurreko eguneko bazkalostean agertu ziren. Umeek jan zutena aztertu ondoren, Eusko Jaurlaritzakoek kutsadurarik ez zela egon adierazi dute. Era berean, Haur Eskolako gertaeren ondoren, Elgoibarko beste 3 ume ingresatu zituzten eta itxura denez, horietariko bi, (anai-arrebak) ekainaren 3a baino lehen gaixo zeuden. Beste herri batzuetako anbulategietako pediatrekin hitz egin ondoren, Eusko Jaurlaritzakoak ondorio honetara iritsi dira: intoxikazioa ez dela izan egoera txarrean zeuden jakiak irensteagatik, birus batek eraginda, baizik.

● Elgoibarko Udala, Altzolako tren geltokia kentzearen kontra

Elgoibarko Udalak ez du onartzen Eusko Trenbideak enpresak Altzolako tren geltokia kentzeko hartu duen erabakia. Alkatearen esanetan, “bere kabuz eta inorekin kontsultatu gabe hartutako erabakia da. Ez zaigu bidezkoa iruditzen, eta gauzak egiteko modua ere ez zaigu egokia begitantzen. Udalak Altzolaren aldeko apustua egiten du”. Altzola berreskuratzeko prozesua martxan dago, “Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso izan du Altzolak bertako eraikuntzak berreskuratzeko eta, gure ustez, plan soziourbanistiko egokien bidez beharrezko jende bolumena lortuko du apeaderoak. Hartara, apeaderoaren erabilera justifikatuta legoke”. Honi guztiari buruz berba egiteko, alkateak bilera egiteko eskatu dio lehenbailehen Eusko Trenbideak enpresari, bertan enpresako ordezkariak, Altzolako auzotarrak eta alkatea bera egongo liratekeelarik.

6 milioi pta. laga ditu ONCEk Elgoibarren

Joan den ostiralean, uztailak 3, Plaza Haundiko ONCE-ko saltokian ia 7 milioi pezeta banatu ziren saritan. Zenbaki saritua 024 serieko 11.667a izan zen. Paquito Linaresek esan digunez, guztira 6.900.000 pta. banatu ditu, horietatik 5 milioi Urasandiko emakume batek irabazi dituelarik. Gainontzekoa Urasandiko hainbat auzotarren artean banatuta egon da 100.000 pta.ko sarietan. Esan digunez, bere arrebari 100.000 pta. tokatu zaizkio, berari, ordea, bat ere ez. Zortearren kapritxoak!



DISNEYLAND 3 gau
(4 egunerako sarrera doan)
(Hendaiaetik trenez) **45.950** pta.tik
(Miarrizetik hegazkinez) **56.700** pta.tik

PARIS 3 gau
(Hendaiaetik trenez) **30.350** pta.tik
(Miarrizetik hegazkinez) **50.300** pta.tik

MARRAKECH 8 gau
(Madriletak) **37.500** pta.tik

KRUZEROA MEDITERRANEOAN
(Bartzelonatik) **92.900** pta.tik

CUBA 7 gau (Madriletak)
Uztailak 14 **84.000** pta.

CANCUN 7 gau (Madriletak)
Uztailak 19 **85.000** pta.

PLAYA BAVARO 7 gau
Uztailak 17 eta 24 **138.900** pta.

ISTANBUL 7 gau (Bilbotik)
Uztailak 12 eta 19
3*eko hotela **59.500** pta.

PRAGA 7 gau (Bilbotik)
Uztailak 12 eta 19
3*eko hotela **58.800** pta.

PRAGA-VIENA-BUDAPEST
7 gau uztailak 12 eta 19
3*eko hotela **80.500** pta.

ZIRKUITOAK AUTOBUSEZ
GALIZIA - Rias Baixas
7 egun P.O. **17.500** pta.tik

BENIDORM
8 egun P.O. **29.900** pta.tik

COSTA BRAVA
8 egun P.O. **37.500** pta.tik

ANDALUZIA
7 egun P.E. **40.900** pta.tik

SALOU - Port Aventura
8 egun P.O. **41.500** pta.tik

ITALIA
10 egun P.O. **79.500** pta.tik

ETA GAINERA...

Bidaiak irletara:

Balear irlak, Kanariar irlak, Madeira etab.

Egonaldiak:

Costa Brava, Dorada, Blanca, Azahar, Del Sol, De la Luz, Cantabria, Asturias, Galicia etab.

Hotel Color, Bancotel, Ibercheque, Keytel Pass eta beste hainbat taloitegirekin bidaiatzeko erarik merkeena.

Zatoz eta kontsultatu!

María de las Heras Herrero

(1911-1971)



- 1911ko apirilaren 22an jaio zen Bbilboko Rekalde-Berri auzoan.
- Lau anai-arreba ziren, bera gazteena.
- Bilboko La Casilla auzoan, etxe ondoan zegoen eskolan ikasi zuen. Auzoan bertan egin zuen, baita ere, Lehen Jaunartzea.
- Gazte sasoiaren etxeko lanak egin eta familiaria laguntzen pasatu zuen. Benetan gogoko zuen familiarekin mendira egun pasa joatea, Pagasarri batez ere. Izugarri gogoko zuen mendian ibiltzea.
- Ondoko herrietako jaiak ezagutzeko aukera ederra izan zuen. Bere gazte sasoi horrela eman zuen, bilbotar bizilagun askok bezala.
- Bertan ezagutu eta ezkondu zen Felipe Rodriguezekin eta bi seme-alaba izan zituzten. Urte batzuk pasatu ondoren, 1944an, gerraosteko urte gogor haietan, familia osoa Elgoibarrera etorri zen bizitzera.
- Kamiñeroko frontoiko etxeetan bizi izan ziren. Bere senar Felipek 'Jauregi inprenta' sortu zuen beste bazkide batekin Errosario kalean. Berehala ezaguna egin zen herrian, bere esaerak 'txispa' handikoak ziren eta.
- Maria, Bilbo laga arren, gustura egon zen Elgoibarren familia eta lagun giroan.
- Sinesmen handikoa zen eta debozio berezia zion Amabirjina Milagrosari. Makina bat bederatzirekin egin zituen Madalako elizan.
- Maria hizlaria, atsegina eta alaia zen, oso ezaguna herrian. Gogoko zuen aldizkariak eta nobelak irakurtzea.
- Oraindik sasoi gordina zuela, gaixotasun txar batek jota, 1971eko urriaren 1ean hil zen 60 urterekin.

Juanito Gorositza

KAROBI
TABERNA



Tel. 943 74 06 37
San Frantzisko, 37



Pedro Muguruza 5
Tel: 943 74 08 06
20870 ELGOIBAR

TxikiBARREN

1^oko eta DBHko IKASLEEKIN EGINDAKO 46. GEHIGARRIA

Ilailera arte agur esaten du TxikiBARREnek. Uztaila irteerez beteta iritsi zaigu, San Bartolome Ikastolak ekarritako argazkietan ikus daitekeen bezala. Esate baterako, 5. eta 6. mailako 98 ikasle Arabako Zuhatza irlako aterpetxean izan ziren (1. argazkia). Giro ezin hobean wind-surf, optimis, piraguismoa, arrauna eta beste hainbat ur-kirol egiteko aukera izan zuten.

DBH 1. mailako 46 ikasleek Zestoako Sastarrain baserri eskolan hiru egun pasa zituzten (2. argazkia). Hauek hainbat ekintza eginn zituzten: otargintza, mendi irteerak, ikuloa gobernatzen ikasi, zaldi gainean ibili, haitzulotan sartu eta Ekain koben kokapena ikusi, besteak beste.

DBHko 3. mailako ikasleek, berriz, Nafarroako Bertiz ingurua ezagutu zuten (3. argazkia). Hauek ere raffting, piraguismoa, hidrospeed, zaldi gainean ibili eta antzeko kirolak egin zituzten. Nazioarteko Ingurugiroaren Egunean Bertizko lorategi botanikoan dauden landareen berezitasunak ikusi eta ikasi zituzten.

Azkenik, BBB2ko 24 ikasleak ikus ditzakegu (4. argazkia). 16 urteko neska-mutil hauek 3 urte zituztenetik izan dira bertan. Ikastolatik arrakastarik handiena opa diete euren etorkizunean.



1



2



3



4

Jakitunen eskutik

Eguzkiaren arriskuak begietarako

UZURI LARRAÑAGA

OPTIKOA

Udaren etorrerarekin, eguzkiaren eragina lurrian aldatu egiten da eta ondorioz, gehiago kexatzen gara eguzki izpien eraginarengatik. Izan ere, gure eguneroko bizitzan gazte eta umek batez ere, ordu asko pasatzen dituzte barruan, etxean, eskolan eta abar. Hortaz, oporrak iritsi eta eguraldi ona egiten hasten denean, begia ez dago izpietara ohitua.

Orain arte gazteek eta umek ez zituzten begiak izpiez babesten, ez zitzaion garrantzirik ematen, uste genuelako gazteen begiak hobeto daudela babestuak. Egia esan hau ez da guztiz okerra baina zenbait gauza argitzea komeni da. Begiak pupila ixten du, txikiagoa jarriz, argiaren-gandik babesteko, horrela erretina erretzea ebitatzen da. Ezaugarri hau askoz nabarmenagoa da ume eta gazteen artean. Hala ere, gauza jakina da eguzkiak erradiazio desberdinez osaturiko izpiak botatzen dituela eta ez gaude guztiengandik babestuak.

Lehenik eta behin "ultravioleta" delakoak daude, 200 eta 400 namometro artekoak. Hauek

ikustezinak dira baina azala eta begiak honda ditzakete. Izpi hauen aurrean babesik gabe luza-ro egonez gero, begietan hazkura, gorritasuna, burukomina, konjuntibitisa eta une bateko itsutasuna sor daitezke. Bestalde, ikus ditzakegun izpiak daude, 400 eta 780 namometro artekoak. Garai batean izpi hauek kaltegarriak ez zirela uste genuen baina gaur egun badakigu 400 eta 500 namometro artean argi urdina dagoela, kokatzeko zaila izan arren, koloreak ondo bereizteko gaixotasunaren erruduna dena eta begiaren zahartzea sor dezakeena.

Azkenik, guztiok ezagutzen ditugun "infragorriak" daude, 780 eta 1.800 namometro artekoak. Hauek ere ez dira ikusten baina igarri egiten dira berotasuna ematen dutelako. Begiak ez dauka berez hozteko biderik, beraz, beroak nekea sor dezake, lehortasuna eta, batez ere lentilak erabiltzen dituztenen artean, kataratak azaltzeko bidea errazten du.

Ondorioz, zera esan dezakegu: nahiz eta gaztea izan, kanpoko kirolak praktikatzeko orduan, besteak beste mendian ibiltzea, txirrindularitza, arrantza, eskia eta abar, beti-beti begiak babestu egin behar ditugu, izpi "ultravioleten" menpe baidade. Horretarako, ezinbestekoa da eguzkitako betaurrekoak erabiltzea eta hauek homologatuak daudela ziurtatzea, hau da, aipaturiko izpien aurrean babesten dutela.

Zer iritzi daukazu *San Bartolome jai*...ei buruz?



Ondo pasatzeko egiten dira baina jendea kanpoan dagoenean ospatzen dira eta niretzat hori gaizki dago.

LEIRE PEREZ, 13 urte



Zezen bat bakarrik ipini beharrean 50 zezen ipintzea.

IMANOL ALBIZU, 11 urte.



Egun zoriontsuak dira. Barraketan ibili daiteke, gauean kalean afaldu, parranda egin eta etxera berandu joan.


ITSASO LOPEZ, 8 urte



VANESA MORENO
6 urte

Galde debalde

- 1- Noiz haserretzen zara asko?
- 2- Zerk lotsarazten zaitu?
- 3- Zer galdetuko zenioke ispilu magiko bati?
- 4- Zein zapore emango zenioke mendiko izotzari?
- 5- Zer gustatuko litzazuke aurkitzea hondar azpian?
- 6- Igerilekua ala itsasoa nahiago duzu?
- 7- Zein da gehien gustatzen zaizun jolasa?
- 8- Telebistako zein saio nahi zenuke aurkeztu?



IVAN MARTI-
NEZ
14 urte

- 1- Inoiz ez.
- 2- Ez daukat lotsarik.
- 3- Ea non bizi den Eurne Zuri.
- 4- Natazkoa.
- 5- Ura.
- 6- Igerilekua, olaturik ez dagoelako.
- 7- Sokasaltoa.
- 8- Ez zait gustatzen telebista.

- 1- Hitz egiten nagoenean kasurik egiten ez badidate.
- 2- Adarra jotzen didatenean eta ez dakidanean zela erantzun.
- 3- Ea nolako den heriotza.
- 4- Txokolategia.
- 5- Urrea.
- 6- Itsasoa, olatuak daudelako.
- 7- Lagunekin edozein jolasetan pasatzen dut ondo.
- 8- "El Euromillón", Paula Vazquez-ekin batera.

Zer da... *egarria* ?

DAVID RODRIGEZ 13 URTE



Edarien iragarkiak ikustean sentitzen duzuna.

GEMMA FERNANDEZ 13 urte



Likidoa behar duzunean sentitzen duzuna.

ION ODRIOZOLA 8 URTE



Eztarria eta mingaina lehorra edukitzea eta edateko gogo.

AMAIA BAGLIETO 7 urte



Eztarria lehorra edukitzea eta ura edateko gogo da.

ITSASO PEREZ 10 URTE



Denbora asko ura edan gabe egoten zarenean barruan sentitzen duzun larritasuna.


OIER ETXANIZ 9 urte



Zerbait edan baino lehen barruan sentitzen duzun lehorketa txikia.

Denborapasak: ezetz asmatu!

1. Zer da hau?



2. Zer galdetu diegu?



ION MEMBRILLERA

12 urte


“El flechazo’. Kalian baino erretzago topatzen da emaztegia horrelako programa batian eta gainera bidaia bat oparitzen dizute”.

**AITZIBER
CANCIO del PINO
8 urte**

“Super Bat-ekua edo Euskaraoketua. Modako jantzixak ipiniko nitxuzke, abestu eingo nuke eta galderak eingo nitxuzke kalian, inkesta!”.



3. Zenbat lore falta dira hosto bakoitzari bi egokitzeko?



4. Asmakizunak

— Txiki eta biribila naiz
dantza egiteko etorria mundura.
Lotzen naute dantzan hasteko,
askatzen naute dantzatzeko.

— Oso disdiratsua,
mutu eta itsua,
hitzik gabe esaten diot
politari polita
itsusiar itsusia,
ni ez naiz gezurtia
ni ez naiz faltsua.

— Laukitxo betetik nago
eta marroia naiz
jendearen mihian
ikusiko nauzu maiz.



A

lanetan jardun zutenak dira. Atzean, berbena alaitzeko taldearen izena ikus dezakegu, 'Ritmo'.

1967ko
koa da.
ñandezek
rak esan
anikako
ialeko 3.
bidaiara-
to antola-
rakoa da.
kamarero

Ikus dezagun zein diren ikasle hauek:
Atzetik hasita, ezkerretik eskumara:
Josu Luis Zabala, Juan Carlos Vila eta Antonio Egaña.

Bigarren ilaran: **Pascual, Antonio García Marcos, Antton Bergara, J. V. García Mortalena, Sainz, Iñaki Alkorta, Julian Bilbao, Juan Jose Sastre, Alberto Badiola, Juan Antonio Palomino, Alberto Etxaniz, J. M. Ostolaza, Jose Miguel Lariz eta Goikoetxea.**

Hirugarren ilaran, makurtuta: **Jesus Astigarraga (†), Jorge Aja, Jose Antonio Etxeberria, Jose Angel Zelaia, Rosario Fernández, Jose I. Ibañez eta Francisco Javier Beristain.**

Autoa bidaiarako prest

Oporretara autoarekin joateak abantailak eta desabantailak ditu. Desabantailen artean dago auto-ilara luzeetan zain egon beharra izaten dela askotan. Abantaila da norberak nahi duenean atera eta batera eta bestera joateko aukera eskaintzen digula. Edozein modutan, autoa hartuta oporretara ateratzen diren guztiek jakin behar dute bidaiari joan aurretik behar bezalako txeko edo errebisioa egitea komeni dela. Are gehiago, 10.000 km. tik gora duten autoen kasuan ia derrigorrezkoa da errebisioa egitea. Begiratu eta zaindu behar diren funtsezko gauzak hiru dira: pizketa, direkzioa eta suspentsioa.

Hala ere, horiez gain, ondoren zerrendatuko ditugun guztiei ere begiratu bat ematea gomendatzen da. Kontuan izan, zenbat eta zaindu behar duzun autoa, orduan eta segurtasun ateratzeko orduan.

ERREBISATU BE

- ⊗ Olioaren eta uraren
- ⊗ Balazta-pastilak.
- ⊗ Uhala edo korrea
- ⊗ Bujiak.
- ⊗ Iragazki edo filtroen garbiketa.
- ⊗ Haizetako-garbigailua (limpiaparabrisas

- ⊗ Argiak: lainokontraoak, aurrekoak, atzekoak, barrukoak eta pilotoak.
- ⊗ Seinaleztapen sistemak.
- ⊗ Aurreko eta atzeko segurtasun gerrikoak.
- ⊗ Enbrage pedalaren bidea.
- ⊗ Errefrijerazio sistema eta zirkuitoan egon daitezkeen ihesak.
- ⊗ Atzerako ispiluak.
- ⊗ Esku balazta.
- ⊗ Bateria.



FORD LERUN 	ELGO-AUTOS 
Deba kalea, 14 • Tel: 943 74 25 91/ 74 41 96	

BAROLA Autoen konponketa	
Olaso, 16 Tel: 943 74 31 04	

	CARROCERÍAS S T R A D A, S. A. L. AUTOEN KONPONKETA TXAPA - MEKANIKA - ELEKTRIZITATEA PINTURA - ERROTULAZIOA TAPIZERIA OROKORREAN
Otaola, 22 Tel: 943 11 70 26 EIBAR Autonomia kalea, 12 Tel: 943 74 07 12-16 ELGOIBAR	

	HOGEI Bittor Sarasketa, 7 Tel: 943 12 10 00/12 10 19 Faxa: 943 12 70 06 EIBAR
	

Arretaz ibili errepidean

Autoa egoera onean izan arren, errepidean arretaz ibili behar da. Izan ere, despisterik txikiena nahikoa izan daiteke istripua izateko. Horregatik, eta kontuan izanik sasoi honetan auto ugari ibiltzen dela bazter guztietan, zentzu guztiak adi-adi izan behar direla. Jarraian, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak emandako zenbait aholku gogoraraziko ditugu.

- ⊗ Bidaia alde aurretik antolatu, trafikorik handiena egoten diren egunak eta orduak ebitatuz. Ahal bada, interera atzeratzea eta itzulera aurreratzea komeni da.
- ⊗ Gauez gidatzea arriskutsuagoa da eta lekua ezagutzen ez badugu arriskua areagotu egiten da. Ikusmenean nekea igartzen bada, berriz, geratu eta atseden hartu behar da.
- ⊗ Trafikoaren eta errepideen egoeraz infomatu komunikabideen bidez, SOS DEIAK (008) zerbitzura deituta edo trafikoa buruzko informazioa eskaintzen duten telefonoetara deituta: **945 28 20 00** (Araba), **94 444 14 44** (Bizkaia) eta **943 46 61 12** (Gipuzkoa).
- ⊗ Trafiko handia badago edo ilaran bazoaz ez



egin alferrikako aurreraterik. Denbora gutxi irabaziko duzu eta arriskua handia da.

- ⊗ Abiadura kontrolatu behar da. Segurtasun distantzia gorde beti, batez ere errepidea egoera txarrean badago.
- ⊗ Zirkulazio Kodeko arauak errespetatu eta trafiko agenteen aginduei kasu egin.
- ⊗ Ez edan alkoholik eta ez jan janari astunik. Gehiegizko janariak logorea sortzen du.
- ⊗ Neke edo ondoez sintoma txikienaren aurrean atseden hartzeko geratu behar da. Ez egin bidaia luzerik geratu gabe. Ume txikiek sarri deskantsatu behar dute.
- ⊗ Ez hartu ekipaia gehiegirik. Ikusmena oztopatzeaz gain autoaren egonkortasuna arriskuan jar dezake.
- ⊗ Nahiz eta bigarren mailako errepidea izan eta trafiko gehien ibiltzen ez den ordua, arreta ez da inoiz gutxitu behar, frogatua baitago une eta toki horietan geratzen direla istripurik gehienak.
- ⊗ Autopistan, eskumako karriletik zirkulatu, segurtasun distantzia handiagoa gorde eta egin beharreko maniobra guztiak aurrez seinatu.

Urasandi, S. L.
karrozeriak

Deba kalea, 14 behea - Tel: 943 74 34 00

Aldi bi GALLOPER

NISSAN MITSUBISHI MOTORS

Olaso, 23 - Tel: 943 74 20 37 - Faxa: 943 74 35 24 ELGOIBAR
Zigarrola, 1 - Tel: 943 71 20 20 - Faxa: 943 79 65 65 ARRASATE

AUTO REPARACIONES



ELGOIBARRESAS

Pedro Migel Urruzuno, 2

Tel: 943 74 08 97

Mobila: 908 775 996

“Espainiako Judo Txapelketarako ondo preparatzia nahi dot”



Maialen Mora

- **Adina:** 13 urte.
- **Zein kirolengatik aldatuko zenuke judoa?** Igual atletismuagatik baina oso zaila izango litzake judoa ezerrengatik aldatzia.
- **Zein musika talde duzu gogoko?** Ska-pe, bakalao musika,...
- **Beste arte martzialik ezagutzen duzu?** Karatea eta taekwondo ezagutzen ditxut baina ez jataz gustatzen.

- **Nolako denboraldia egin duzu aurreten judoan?** - Denboraldi ona izan da. Lelengo aldiz Espainiako Judo Txapelketara iritsi nitzan, nahiz eta ez naban ezer lortu. Denboraldia orokorrian ona izan da, ni behintzat pozik nao.

- **Gipuzkoako txapelduna izan zara, ez?** - Bai, Gipuzkoako txapelduna eta Euskadiko bigarrena. Gero, Espainiako txapelketarako sektorian bigarren geratu nitzan. Espainiako txapelketan maila haundixa ikusi naban, nere pisuan batez ere. Jendiak komentatzen zaban nesken kategorian, nere pisuan, oso maila altua zauala. Danak zian ni baino urtebete nausixauak eta hori neretzako desabantaila zan. Lelengo esperientzia izan da eta nere asmua hurrengo urtian hobeto preparatzia da eta, ahal bada, zeozer gehixoa lortu.

- **Entrenatzailea zure aita izanik, ez al dizu besteei baino gehiago sakatzen?** - Ez dot uste. Izango dau eragina baina nik ez dot igartzen gehixoa sakatzen dianik. Askotan ez dot gogo haundirik eukitzen eta ez dot ganoraz entrenatzen.

- **Udan prestakuntzarekin jarraitu behar al duzu?** - Bai. Aitxak fitxa moduko batzuk prestau ditxu klubeko judoka bakoitzantzat eta nahi dabanak ariketak eingo ditxu udan. Nik eta anaixak kirola ein biharko degu, ze aitxa gainian eongo da. Hala ere, hobeto da udan preparazio fisikua eitxia, hola, urrian txapelketekin hasten geranian ez

jaku hain gogorra eingo.

- **Zein gerriko daukazu?** - Marroia. Beltzan aurrekua da baina 15 urte bete arte ezingo det beltza atera. Ondiok bi urte geratzen jataz marroiakin.

- **Zaila al da gerriko beltza ateratzea?** - Examin bat izaten da eta ez dakitx zaila edo erreza dan. Askoo ikasten badozu eta gimnasiuan asko entrenau ezker, pentsatzen dot ez dala hain zaila izango.

- **Neska asko zaudete judoan?** - Orokorrian mutilak baino gitxio. Andorrrako torneuetan, adibidez, beti mutilen kontra ein bihar izan dot eta azkenengo aldiz jun nitzanian, lelengo bider ein naban nesken kontra. Badaude torneo mistuak ere, neska nahikua ez gaudelako. Gure klubian, txikixetan neska asko daoz baina nagusixetan bost edo sei bakarrik. Mutilak, berriz, askoz gehixoa.

- **Etxean judoa ez den beste zer-baiti buruz hitz egiten duzue?** - Bai! Ni hiru urtekin hasi nitzan judoan, nire anaixak bost urte zaukazenian, eta aitxa ere beti ibili izan da juduan. Hala ere, eskubaloia eta atletismua asko gustatzen jataz. Anaixa eskubaloiko ekipuan dabil eta nik ere eskubaloiko Euskadiko txapelketan jokatu naban. Baina ondiok infantiletan nao eta momentuz ezin dot kadetien ekipuan jokatu.

- **Atletismoan ere ez zabiltxa batera gaizki.** - Aurreten pisu jaurtiketean Euskadiko txapelduna izan naiz baina Espainiakorik ez da egon. Neretzako hobby bat da, kirola asko gustatzen jata eta.

KIROL ALBISTEAK

● **futbito finalak gaur, hilak 10, jokatuko dira**

Urasandiko Futbito Txapelketako Ligako eta Kopako finaleko partiduak gaur, hilak 10, (ostirala) jokatuko dira Olaizaga Kiroldegian. Ligako finala duela pare bat aste jokatuko behar zen, baina hainbat arrazoi direla medio, atzeratu egin zen. Hortaz, lehendabizi Kopako finaleko partidua hasiko da, gaueko 22:00etan hain zuzen. Ondoren, 23:00etan, Ligako irabazlea zein den jakiteko partidua hasiko da. Berrogei Duro eta PSK dira Ligako finala jokatuko dutenak.

● **futbol 7 Txapelketa, azken txanpan**

Eibarko eta Elgoibarko Udal Kirol Patronatuek antolatutako Futbol 7 Txapelketa azken fasean sartu da. Datuzen bi asteetan final zortzirenak, final laurdenak, final erdiak eta finalak jokatuko dira. Egutegia honako hau da:

Uztailak **19**, igandea. final zortzirenak
 Uztailak **22**, asteazkena final laurdenak
 Uztailak **25**, larunbata final erdiak
 Uztailak **26**, igandea. . . finalak eta 3. eta 4. postuak


Gipuzkoako Eskubaloi Federazioak Elgoibarko eskubaloi taldeak saritu ditu

Unai Arrieta Gipuzkoako jokalaria onena izendatu dute

Ekainaren azken asteburuan, ekainaren 26an hain zuzen, Elgoibar Kirol Elkarteko Eskubaloi Taldeko hainbat ordezkari Donostian izan ziren Eskubaloi Federazioak ematen dituen sariak jasotzeko. Elgoibartarrak urtero jasotzen dituzte Federazioaren eskutik hainbat sari eta aurten ere ez da gutxiago izan. Batetik, denboraldiko jokalaria onena Unai Arrieta aukeratu dute. Unai Eibarko Arraten jokatzen du baina pasa den denboraldira ar-

te Elgoibarko eskubaloi taldeko jokalaria izan zen. Bestalde, seniorren taldeak Kopako txapelkunaren saria jaso du; kadete mutilek eta jubenil neskek Ligako txapelkunari ematen zaion saria merezi izan dute; Irma Aldazabal goleatzaile onena izan da eta kiroltasun saria jubenil neskek eskuratu dute. Azkenik, entrenatzaile onena Ales Arrieta aukeratu dute eta ordezkari onena Federico Peñaranda.

Beheko argazkian, Anoeta estadioaren aurrean agertzen dira saritutako elgoibartarrak. Eskuman Unai Arrieta, jokalaria onena.



Iban Bello izan da La Unión-ek antolatutako Arrantza Txapelketako irabazlea

Bederatzi herritarrek hartu zuten parte joan den domekan, hilak 5, Deban jokatzen Arrantza Txapelketan. La Unión Elkarteak bazkideentzat antolatutakoa zen eta esan digutenez, harrapatu zituzten arrain gehienak korrokoiak ziren,

200 gr.ko lupina bat izan ezik. Kategoria absolutoan Iban Bello irabazi zuen 5.275 gramorekin. Piezarik ederrena Ibai Etxabek hartutako 600 gramoko arraina izan zen. Infantilen mailan, Iosu Aizpurua sailkatu zen lehendabiziko postuan.



Argazkian, La Unión Elkarteko presidentea Iban Bellori saria ematen.

Sailkapena

- 1- Iban Bello 5.275 gr.
- 2- Ibai Etxabe 2.575 gr.
- 3- Jose Luis Bello . . 1.775 gr.
- 4- Iosu Aizpurua . . . 1.775 gr.
- 5- Francisco Salegi . 1.050 gr.

Piezarik handiena:

Ibai Etxabe 600 gr.

Lehenengo infanta:

Iosu Aizpurua

EMAITZAK

Futbol 7 Txapelketa

- Kama Sutra 1 - Olaso F. C. 5
- Kadar 7 - Materias Peligrosas 2
- Inkision 5 - PAC 0
- Txiri Strike 3 - Invencibles.Txer 10
- Bar Gure Toki 5 - Bar Malape 1
- Zordunak 0 - Bar La Amistad 11
- Lojantzi 9 - SAS 2
- AIK 4 - Pimpaos Hilbera 4
- Bar Xare 1 - ZRU 0
- Elec. Egaña 2 - Spartak de Vladikaskav 9
- Faustino VII 6 - wwwwinter-medio.com 4
- De la Buena '2' 1 - R. Oso Pataka B 7
- Basano 353 1 - Aizkolariak 0
- Azkenengoak 1 - Los Blancanitos 0
- Spartak Pitxote 7 - Liverpool-Pol 6
- Amañako Zeni Taldea 4 - Ford Lerun 5
- Bar Arkupe 4 - Zergatik Ez 1
- Ke+Da 7 - Litoplasma 3
- PSK 4 - Pottokoak II 4
- Alki '07' 1 - Vultur Gryphus 3
- Vander Vela y Cia 10 - Larrutxupi 11
- Aide Globun 5 - Rayas de Amsterdam 9
- F. Astigarraga 4 - Murruka 4
- Majestades Satánicas 1 - Sin Perdon 0

AGENDA

Futbitoia, Kiroldegian

- Ostirala, 10
- 22:00 Kopako finala
- 23:00 Berrogei Duro - PSK (Ligako finala)

Futbol 7 Txapelketa, Unben

- Larunbata, 11
- 10:00 1664 G.A. - wwwwinter-medio.com
- Elec. Egaña - Faustino VII
- 11:00 Ful Monti - Aizkolariak
- De La Buena '2' - Bassano '353'
- 12:00 Ez Dok - Guridi Taberna
- Malas Hierbas

Futbol 7 Txapelketa, Mintxetan

- Igandea, 12
- 10:00 Spartak de Vladikaskav - Faustino VII
- 1664 G. A. - Elec. Egaña
- 11:00 R. Oso Takata B. - Bassano 353
- Ful Monti - De La Buena '2'
- 12:00 Violet Kickers - Anorthosis
- Ez Dok - Malas Hierbas

TRIKITILARI EGUNA

Lehengo, gaurko eta biharko trikitilariak bat eginik Gelatxoren omenez

Plaza Handiak gainezka egin zuen arratsaldeko erromerian

Jai handia izan zen joan den domekako Trikitilari Eguna. Pedro Sodupe 'Gelatxo' ren omenez, Euskal Herri osoko 500 trikitilari elkartu ziren, trikitilari 'zaharrak' eta gazteak. Goizeko ekitaldietan "Gelatxo" k nekez eutsi izan zien malkoei benetakopak eta sentituak izan baitziren trikitilarien, Sallobente auzokoen, Haritz Dantzari Taldekoen eta udal ordezkarien esker oneko hitz eta zorion-agur beroak. Gelatxo'k berak aitortu zuen bezala, "ez dakitx nik hainbeste merezi doten". Gizon honen apaltasunaren adierazgarri dira hitzok.

Eguerdiaren 800 lagunetik gora elkartu ziren Kiroldegiko bazkarian. Arratsaldean, berriz, demaseko erromeria izan zen Plaza Handian. Gutxitan ikusi izan da Plaza Handia hain bete. Aparteko eguraldiari eta trikitilarien lan bikainari esker, arratsaldeak ko-

lore berezia izan zuen. Trikitilarien kartela gutxitan ikusten den horietako izan zen: Maixa eta Itziar, Tapia eta Leturia, Alaitz eta Maider, Aitor Furundarena, Imuntzo eta Beloki, Oihane eta Eneritz, Mentxu Alkorta, Zabale Anaiak, Herriko Dultzaineroak eta Udal Txistulari Taldea. Jendeak dantzarako gogoak erakutsi zuen eta hiruzpalu 'bis' eskaini behar izan zituzten.

Argazki erakusketa

Ostiralean, hilak 3, 'Gelatxo' ren omenezko argazki eta musika tresnen erakusketa inaguratu zen. Manuel Sodupe 'Gelatxo' k jotako pieza bat entzuteko parada izan zen estreinakoz. Ondoren, herritar mordoaren aurrean, udal agintariak, trikitilariak eta Pedro Sodupek berak bals bat dantzatu zuten. Bals-a, noski, Gelatxo taldeak interpretatutakoa zen.





3 ikasketa bidaia aukeran

Paris, Holanda eta Torremolinos. Hiru leku desberdin. Hiru aukera astebete pasatzeko. Herri Insitutuko UBIko ikasleek ikasbidaiarako hiru plan izan dituzte, bakoitzak gustukoen zuena aukera zezan. Eta gu hiru ikaslerekin izan gara, bakoitzak zer ikusi eta zer moduz ibili den konta diezagun.

TORREMOLINOS



Yvette Miguez

“Egun baten Isla Magica ikustera jun ginan, Aquapark batera ere, batzuk Marbellara jun zian... Baina, gauetz urten eta berandu erretiratzen ginanez, hurrengo goizian goiz jaikitzeo gogorik ez genduan eukitzen.

Gabero Paladium izena zakan diskoteka batera juten ginan. Igerilekua ere bazakan. Mutil gehixenak bainau zian baina neskak ez, ze gero ile dana busti-txa... Hala ere, diskotekak goizeko 6:00etan ixten ditzue eta gero ez dao ezer. Gainera, taberna bakoitzan kanpua pertsona bat egoten da eta bere lana da zu konbenzitzia hara sartzeko eta batzuetan agobiantia itxen da.

Penia izan da gure edadeko jende asko ez zauala eta ez dou kanpoko jenderik eza-gutu. Ligeak? Gutxi, Elgoibartik parejak jun zian inda baina hoi ez aparte... Ez da izan guk pentsatzen genduan bestekua baina ondo ibili gera”.

HOLANDA



Ivan Lendinez

“Holandan bazeuden zenbait gauza ezagutu nahi nituenak: Amsterdam-eko Coffee-shop famatuak, esaterako. Beste inon ikus ez ditzakezun taberna motak dira. Han ez dute alkoholik saltzen baina karta moduko bat ematen dizute erretzeko belar mordo bat aukeran daukazularik.

Horrez gain, Bruselas eta Brujas ere ezagutu ditugu eta behin

egurrezko zuekoak egiten dituzten fabrika batean izan ginan. Amsterdam beste edozein hiri bezalakoa da baina izugarria da ikustea zenbat arraza desberdin eta giza maila elkartzen diren toki berean. Gehien-gehien Coffe-shop-ak gustatu zaizkit. Hura oso desberdina da eta gidariek ere esan ziguten kontu handiz ibiltzeko. Amsterdam-en ‘ganbeluek’ kalean trafikatzan dute eta edozein unetan sartzen zaizkizu edozer eskaintzen: cocainatik hasi eta fresazko txikleak arte”.

PARIS


Amaia Rezola

“Goizeko 7:30ean jaiki eta egun osua pasatzen genduan kalia. Danetik ikusi dou: Notre Dame, Louvre, Barrio Latina, Eiffel dorrea, Sena ibaixan ibili ginan barkuan gabaz, “La pulga” izeneko merkatuan...

Eurodisney eta Futuroscope ere ezagutu ditzugu. Eurodisney pasada bat da, umiak baino gehixo disfrutau dot. Futuroscope-kin nahiko desilusionatuta urten nitzan. Montaje haundixa da baina atrakziua nahiko eskasak.

Behin jun ginan almatzen batzuetara erosketak itxera eta beltz batzuk gure atzetik hasi zian. Beste egun batian, kasualitatez, hotelan aurrian sikiatriko bat zauan eta tokau jakun tipo exhibizionista bat. En fin, danetik piskat.

Mundiala ere tokau jakun. Espainiar mordo bat ikusi genitxun ardo botia hartuta, banderiakin, arpeixak margotuta... “.



INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia:
 Larrialdiak 943 461111
 Txanda hartzeko . . . 943 743354
 Planning-a 943 742950
 Alkoholiko Anonimoak . . . 943740385
 D.YA (anbulantzia) . . . 943 464622
 Gurutze Gorria . . . 943 743864
 Mendaroko Ospitalea . . . 943 756264
 Odol Emaileak . . . 943 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak 943 740442
 PESA (Eibar) 902 10 12 10
 Taxi geltokia 943 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua 943 744366
 Udal Kirol Patronatua . . . 943 744415
 Kultura Zerbitzua . . . 943 742158
 Mendaroko Udala 943 756100
 Ongizate zerbitzua 943741008
 Udaletxea 943 741050
 Udaltzaingoa 943 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra 943 741626
 Kiroldegia 943 744415
 Kontsumo Bulegoa 943 743088
 Liburutegia 943 743525
 Musika Eskola 943 742145
 Mintxeta 943 744315
 Parrokia 943 740842
 Postetxea 943 741547
 Gaztetxea 943 743572

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza . . . 943 740296
 Zaharren Biltokia 943 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola 943 74 21 41
 HHI (EPA) 943 74 08 80
 Herri Eskola 943 74 08 79
 I.M.H. 943 74 41 32
 Herri Institutua
 Arreiturre 943 74 02 67
 Ezenarro (Meka) . . . 943 74 44 80
 Ikastola 943 74 44 41
 Pilar Ikastetxea 943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 943 74 41 12
 El Diario Vasco 943 74 40 73
 El Correo Español . . . 943 74 10 82
 Egin 943 10 84 21
 Zazpiki Irratia . . . 943 74 34 74

10 ostirala

18:30 ODOL ATERALDIA
 P. M. Urruzuno 8an

19:00 GAZTE ASANBLADAren BILERA
 Gaztetxean

22:30 AIRE LIBREKO ZINEA
 "Dark city"
 Plaza Handian
 Antolatzailea:
 Ongarri Zine Kluba

11 larunbata

12:00 ZAZPIKIREn BILERA
 Ganbaran

22:30 AIRE LIBREKO ZINEA
 "Megassonics"
 Marrazki bizidunak euskaraz
 Plaza Handian
 Antolatzailea:
 Ongarri Zine Klub

12 igandea

11:45 BIZIKLETA MARTXA DEBARa
 Irteera Plaza Handitik

18:30 GELATXOrekin DANTZALDIA
 Plaza Handian

14 asteartea

10:30 SAN FERMIN TXIKI EGUNA
 Plaza Handian
 Antolatzailea:
 Atxutxiamaika Begirale Taldea

15 asteazkena

20:00 EUSKAL DANTZEN ERAKUSKETA
 Izenburua: 'Alakiketan, Tradizioaren ikuspegi bat'
 Kultur Etxean
 Hilaren 30era arte
 Antolatzailea:
 Haritz Dantzari Taldea

17 ostirala

19:00 GAZTE ASANBLADAren BILERA
 Gaztetxean
22:30 AIRE LIBREKO ZINEA
 "Hard rain"
 Plaza Handian
 Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba

AIRE LIBREKO ZINEA



Dark City

John Murdoch hotel bateko bainera batean esnatzen da. Ez da ezertaz gogoratzen baina polizia bere atzetik dabil hainbat emakume hil dituela leporatzen baitiote. Errealitatearekin lotura bakarrak bere emaztea eta zientifiko baten bisita txartela dira. Zientifikoak talde maltzur batentzat egiten du lan eta 'sintonizaión' delako tratamendua aplikatzen ari dira biztanleekin. John Murdoch gauzak bere onera ekartzen saiatuko da.

Zuzendaria: Alex Proyas.
Antzezleak: Jennifer Connelly, Kiefer Sutherland, William Hurt.

● **San Fermin Txiki Eguna**
Atxutxiamaika Begirale
Taldearekin

Datorrean asteartean, hilak 14, Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaika Begirale Taldeak herriko haurrei zuzenduriko San Fermin Txiki Eguna ospatuko du Plaza Handian. Goizeko 10:30ean bi umek pregoia irakurriko dute Udaletxeko balkoitik. Segidan, umek San Fermini abestuko diote eta berehala txupinazoa botako da Udaletxeko balkoitik.



Ondoren, San Bartolome eta Errosario kaleetan zehar entzierroa egingo dute kartoiz egindako zezenekin. Amaitzeko, neska-mutil guztiek Arnoko zententxo eta poniekin ederki pasatzeko aukera izango dute. Zuriz jantzita eta zapi gorriarekin joateko eskatu nahi dute antolatzaileek.

● **'Alakiketan, tradizioaren ikuspegi bat'**
erakusketa

Datorren asteazkenean, hilak 15, Haritz Dantzari Taldeak antolatutako 'Alakiketan, tradizioaren ikuspegi bat' erakusketa inauguratuko da Kultur Etxean. Haritz Dantzari Taldeak Juan Antonio Urbeltzek zuzentzen duen *Alakiketan*

euskal dantzen ikuskitzunean parte hartzen du. Hilaren 30era arte ikuskitzune honetako jantziak, argazkiak eta bestelakoak ikusteko aukera izango da.

Bestalde, gogora dezagun 'Trikitixaren mundua' argazki erakusketak bihar, hilak 11, zapatua, itxiko dituela atek. Euskal Herriko trikitilarien argazkiek eta hainbat musika tresnek osatzen dute erakusketa.



● **Martxa**
ekologista
bizikletaz

Azken 18 urteotan egin ohi den bezala, domekan, hilak 12, *Eki*, *Eguzki* eta *Martinete* talde ekologistek eta Deba bailarako Gazte Asanbladek antolatuta, bizikleta martxa izango da Debaraino. Aurtun Eibar-Gasteiz autopista eta Deba eta Mutriku artean egin nahi duten errepide berria salatuko dute martxa ekologistaren bidez. Bizikleta martxa eguerdiko 11:45ean pasatuko da Elgoibartik.

● **Gaur, hilak 10,**
odol ateraldia

Gipuzkoako Odol Emaileen talde bat Elgoibarko Pedro Migel Urruzuno 8ko egoitzan izango da gaur, hilak, 10, 18:30etik 20:30era bitartean aurrez deitutako guztiei odola ateratzeko. Odol Emaileen Elkartek gogora ekarri nahi du odola emateak zelako garrantzia duen eta emaile izatera animatu nahi ditu herritar guztiak, batez ere, 18 urtetik gorako gazteak.

T R A N D A R R

FARMAZIAK

	Egunez	Gaeuz
11	Bidasolo*	Anduaga
12	Bidasolo*	Anduaga
13	Etxeberria	Etxeberria
	(Errosario kalean)	
14	Zabaleta	Zabaleta
15	Yudego	Yudego
16	Anduaga	Anduaga
17	Bidasolo	Bidasolo
	*(eguerdiko 2ak arte)	

ANDUAGA: Mendarozabal, 1 Garagarza. Tel: 75 61 42
ZABALETA: Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 75 13 84

OKINDEGIA

12 **igandea** Eizagirre



Zuzendaria: Javier González de la Fuente.
Animazioa: Iñaki Madariaga.

Megasonics
(Marraski bizidunak)

Etorkizun urrunean kokatzen da istorioa. Sinteticom izeneko galaxia batean, biztanleak diktadore baten menpe bizi dira. Egun batean, janariz beteta doan ontzi bat galdu egiten da eta Xilem izeneko ilargira iristen dira. Bertan agure bat eta bere txakurra bizi dira. Agurea ezagutzen dute eta euren galaxian musika zer-gatik ez den existitzen azaltzen die.

OHARRA: Merkatu Txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdia da.

Lana

◆ ESKAINTZA ◆

- ◆ CNC fresadoran lan egiteko pertsona behar da. 1. mailako ofiziala edo esperientziaduna. Euskaraz hitz egiten dakiena. ☎ 943 74 12 97/ 74 06 64
- ◆ Neska gaztea behar da tabernarako zapatuetan eta abuztuko oporretan lan egiteko. Ogitarkeoak egiten aditua. ☎ 943 74 37 71
- ◆ Taberna traspasatzen da Errosario kalean. Bezeroekin. ☎ 943 74 01 80
- ◆ **ESKAERA** ◆
- ◆ Hiru neska gara garbiketa lanean aritzeko prest gaudenak. ☎ 943 74 25 39 (M. Luisa)
- ◆ Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin edo/eta umeak zein zaharrak zaintzeko. ☎ 943 74 21 88
- ◆ Neska euskalduna eskaintzen da uztail eta abuztuan haurrak zaintzeko. ☎ 943 74 17 61 (Miriam)
- ◆ Uztail-abuztuan lan egingo nuke haurrak zaintzen edo tabernan. ☎ 943 74 43 16 (Marimar)

Etxebizitzak

- ◆ Laredon, hondartza ertzean dagoen apartamentua alokatzen dut. ☎ 943 79 52 80
- ◆ Jakan (Membrilleras), apartamentua salgai: bi gela, garajea eta trasteroa. ☎ 943 74 20 31
- ◆ Benidorm-eko Levanteko hondartzaren lehen ilaran apartamentua alokatzen da. ☎ 943 74 20 31
- ◆ Etxea salgai Santa Ana kalean. Erdigunean. 2. pisua, ganbara eta igogailuarekin. ☎ 943 74 03 83/ 74 18 34
- ◆ San Bartolome 4an pisua daukat alokatzeko. Azkenengo solairuan. ☎ 943 74 21 15
- ◆ Abuzturako pisua daukat alokatzeko Zumaian. Guztiz jantzita. ☎ 953 86 12 24
- ◆ Etxea salgai Soroluzen. 62 m², eguzkitsua, egoera onean eta merkea. ☎ 943 12 18 20
- ◆ Etxe bat alokatzen dut Ubitarte plazan. ☎ 943 74 01 59
- ◆ Pisua salgai Santa Ana 6-4-eskuman. Igogailua eta ganbara ditu. 100 m². ☎ 943 74 11 05

Bestelakoak

- ◆ Katu ar bat oparitzen dut. Lau urte ditu. Jateko platera eta abarrek. ☎ 929 47 76 98
- ◆ Caritas-ek etxe bat jatzeko denetik behar du. ☎ 943 74 15 09/74 12 57
- ◆ Perikito berde bat galdu zait. Norbaitek topatu badu dei dezala, mesedez. ☎ 943 74 08 10
- ◆ Hiru-Iturri inguruan bastoi bat galdu nuen igandean. Norbaitek aurkitu badu, dei dezala. ☎ 943 74 15 09
- ◆ Urrezko pultsera bat galdu dut. Norbaitek topatu badu dei dezala ☎ 943 74 41 28 telefonora (gauetz).
- ◆ Haur Eskolan (Arregitorre 4) perikito urdin bat agertu zen ekainaren 30ean. Galdu duenak dei dezala ☎ 943 74 21 41 zembakira.
- ◆ Bi hilabeteko Cocker arrazako txakur kumeak salgai. ☎ 943 75 60 25
- ◆ Bi hilabeteko katu pertsak saltzen ditut. ☎ 943 74 04 26
- ◆ Kalamua kaleko 2 zembakian lokal komertziala saltzen da. ☎ 943 74 09 79 (19:00-21:00)

Garajeak

- ◆ Garajea hartuko nuke alokairuan Urasandin. ☎ 943 74 17 01 (Aitor)
- ◆ Garajea saldu edo alokatzen da Juan Mugerza kalean. ☎ 943 74 12 04
- ◆ Garajea alokatzen da, Pista Beltzaren azpian. ☎ 943 74 14 89
- ◆ Marradun garajea alokatzen da Pista Beltzean 5.000 ptn. hileko. ☎ 943 74 00 70 (gauetz)
- ◆ Garaje itxia saltzen da Arregitorren. ☎ 943 75 51 77 (Tere)
- ◆ Garaje itxia alokatzen da Leku-Ederren. ☎ 943 74 26 94
- ◆ Marradun garajea alokatzen da San Roke 5-7an. ☎ 943 74 33 39
- ◆ Garaje itxia saltzen da Pedro Migel Urruzuno kalean. ☎ 943 74 22 00 (Gaueko 21:00etatik aurrera)

Partikularrak

- ◆ Abuztuko azken hamabostaldirako matematikako, euskarako, geografiako eta, ahal bada, latinek klase partikularrak emateko irakaslea behar dut. ☎ 943 74 38 49
- ◆ Frantseseko klase intentsiboak emango ditut uztailean. Oinarrizko maila. ☎ 943 74 04 59 / 19 24 59
- ◆ Fisika eta matematikako klase partikularrak ematen ditut. ☎ 943 74 13 34 (Andoni)
- ◆ Uztailean eta abuztuan marrazketa, fisika, kimika eta matematikako klase partikularrak ematen ditut. ☎ 943 74 36 45 (Miguel. Eguerdiko 13:00etatik 15:00etara)
- ◆ Ingeles klase partikularrak ematen ditut. Talde txikiak. ☎ 943 74 07 86
- ◆ Alemaneko klase partikularrak ematen ditut. ☎ 943 74 00 98
- ◆ Ingeles klase partikularrak ematen ditut goizez. ☎ 943 75 50 35 (Imanol)

Salerosketak

◆ SALDU ◆

- ◆ Sukalde elektrikoak + butanozkoa saltzen dut. Altzairu inoxidableko plaka dauka. Thinsen marka. Nahiko berria. ☎ 943 74 03 37
- ◆ Citroen AX GT. SS AF saltzen dut. ☎ 943 74 20 32
- ◆ SS-AK matrikuladun Seat Marbella kotxea salgai. Egoera onean. Prezioa: 230.000 pta. ☎ 943 74 11 29
- ◆ Kitarra espainiarra saltzen dut. Berria, estrenatu gabe. ☎ 943 74 17 01 (Asier)
- ◆ Peugeot 309 diesela, SRD, SS-AD salgai. Egoera oso onean. Estrak eta garantia. ☎ 943 74 11 87
- ◆ Garbigailua saltzen dut. Fagor etxekoa. Prezioa hitz egitekotan. ☎ 943 74 39 75 (Arrate)
- ◆ Mendiko bizikleta berria salgai. Orbea average, eskurik gabe (alhivio). ☎ 74 39 53
- ◆ Arropak gordetzeko 2 metroko armairua salgai ispiluekin eta kaxoiekin. Komoda ere bai. ☎ 943 74 39 63 (Alicia)
- ◆ Opel Kadett autoa saltzen dut. Egoera onean dago. ☎ 943 74 40 56 (Andoni)

Agurrak

- ◆ Zorionak gure izeko **Mari Karmeni** hilaren 8an urteak bete zitu-elako. Elgoibarko familiaren partez.



- ◆ Zorionak **Ana** eta **Jesus** **Castrori** uztailearen 10ean urte bat gehiago egingo dutelako. Zer, hasi al zarete urteen pisua igartzen?



- ◆ Zorionak **Asier Rodriguezi** uztailearen 9an urteak bete zitu-elako. Asko maite zaitugu. Gurasoak, izeba-osabak, aitona-

amonak, birraitonak eta lehengusak.

- ◆ Zorionak eta musu haundi bat hilaren 9an urteak bete zituen **Itoitz Vitoresi**. Familiaren, anaia Urkoren eta lehengusina Goraneren partez.



- ◆ Zorionak **Jonathan Garcia**ri bihar, uztaileak 11, 6 urte beteko dituelako. Gurasoen eta Jessica arrebaen partez.



- ◆ Zorionak **Laura Vegasi** bihar, hilak 11, 10 urte beteko dituelako. Guraso eta ahizpa Amaiairen partez.




- ◆ San Fermín egunean 8 urte bete zituen **Mikel Tadeori** zorionak eta 8 tirakada belarritik bere familiaren partez. Ea hurrengo urtean aurten bezalako merendola goxoa prestatzen digun.

ZELETA

BARAZKIAK



NEKAZARITZA TRADIZIONALA eta BABESTUA



Kalitatezko produktuak ortutik mahaira zuzenean

ZELETA BASERRIA • San Migel auzoa ELGOIBAR

ZEZEN-BIDE

AUTO-ESKOLA

Auto, autobus, kamioi
eta motorrentzako
gida-baimenak



*0% 10eko deskontua
Gazte Txartelarekin*

San Frantzisko, 43 – Tel: 943 74 27 20 – ELGOIBAR ■ Zezenbide,1-1 – Tel: 943 20 34 45 – EIBAR

BEHER

Udako moda
preziorik
freskoene -



ASTIGARRAGA



Errosario, 16-18
Tel: 943 74 32 68

FERPI

San Bartolome, 38
Tel: 943 74 08

GARATE

Jantzidenda

San Bartolome, 13
Tel: 943 74 11 29

IRIONDO



KIROLAK

San Frantzisko, 37-54
Tel: 943 74 09 56



San Frantzisko, 43
Tel: 943 74 41 99



San Bartolome, 16
Tel: 943 74 16 80



San Frantzisko, 34
Tel: 943 74 02 35